



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

“GUZTIA BEZik GABE” Eroskiren kanpainari buruzko kontsulta

1. 2015eko urriaren 5ean, Bizkaiko merkatarien sektore bateko elkarte baten idazkia sartu zen Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren (LDEA) erregistroan. En él se manifestaba que han existido

Idazki horretan adierazten da EROSKI S.COOP sozietateak “GUZTIA BEZik GABE” izeneko zenbait kanpaina egin dituela, eta publizitate kanpaina horiek legez kanpokoak eta engainagarriak direla, amaierako kontsumitzailea nahasten baitute eta salerosketako ekintza bat zerga arloko legeetatik kanpo sustatzen baitute

A juicio de la denunciante, la citada campaña

Salatzailearen iritziz, kanpaina horrek ez dakar BEZa kentzea, publizitatean adierazten den bezala; aitzitik, erosten diren produktuen BEZaren zenbateko baliokidea bezeroaren fideltasun txartelean (EROSKI klub txartela) sartzen du eta horrela, geroago saldo hori erabili ahal izango du erosketak egitean. Beraz, "Guztia BEZik gabe" ez dago; BEZa kobratzen da nahitaezkoa delako, baina publikoari zuzenean iristen zion kanpainaren slogan nagusiak ez du hori adierazten. Egia da kanpainaren baldintzetan – letra txikian– azaltzen dela benetan eskaintza zertan datzan, baina kontua ez da hori. Kontua da publizitateak errealitatea azaldu behar duela.

El escrito finaliza solicitando a la AVC que

Idazkiaren amaieran, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari neurriak hartzeko eskatzen zaio, EROSKI kooperatiba sozietateak egin duen publizitateko praxi txar hori berriro gerta ez dadin.

2. LDEA Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa da, eta bere helburua da merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez.

Helburu hori lortzeko, LDEAk zehapen-prozedurak hasi, instruitu eta ebatzen ditu lehiaren jokabide murriztaileak zigortzeko. Jokabide horiek, Lehiaren Defentsarako Legean jasota dauden moduan, era honetakoak izan daitezke: enpresen arteko hitzarmenak, jarrera nagusiaren abusua eta/edo lehiaren faltsutzea ekintza desleialengatik.

3. Deskribatu den jokabidea alderdi bakarrekoa eta beraz, ezin daiteke enpresen arteko hitzarmen gisa tipifikatu.



Kanpaina egin duen enpresa nagusitasun egoeran egongo balitz ere, ezin daiteke esan horrelako unean-unekeo deskontuak egitea nagusitasun egoeraren abusuzko ustiapena denik.

Lehia desleialaren egintzak lehiaren arloko arau haustetzat jotzeko, Lehiaren Defentsarako Legearen 3. artikulua araberan, beharrezkoa da hiru betekizun hauek aldi berean gertatzea: lehia desleialaren egintza bat gertatzea, lehia faltsutzea eta interes publikoa kaltetzea.

Goian deskribatu den idazkian salatzen dena publizitate arlokoa da.

Lehia Desleialari buruzko Legearen 18. artikulua araberan,

Publizitatearen Lege Orokorrak legez kanpokotzat jotzen duen publizitatea desleiala izango da.

Publizitatearen Lege Orokorraren 3. artikulua legez kanpokotzat jotzen ditu honako hauek:

Publizitate engainagarria, publizitate desleiala eta publizitate erasokorra lehia desleialaren egintzak izango dira, Lehia Desleialaren Legean jasotakoarekin bat.

Ildo horretatik, Lehia Desleialaren Legearen III. kapituluak kontsumitzaile edo erabiltzaileekiko harremanetan praktika desleialtzat jo daitezkeen jokabideak zehatz-mehatz deskribatzen ditu. Arau horretan zehatz-mehatz deskribatzen dira kontsumitzaileei nahasmendua eragiteagatik engainagarritzat jotzen diren jokabideak: jokabide kodeen edo bestelako kalitate bereizgarrien gaineko praktika engainagarriak; ondasun edo zerbitzuen jabetza eta izaerari, haien eskuragarritasunari eta salmenta osteko zerbitzuari buruzko praktika engainagarriak; salmenta piramidaleko praktikak; nahasmendua eragiten duten praktika engainagarriak; ezkutuko merkataritza-praktikak; beste praktika engainagarri batzuk; mehatxatzen duten praktika erasokorrak; jazarpenari buruzko praktika engainagarriak; adingabeekiko praktika erasokorrak; beste praktika erasokor batzuk (19 - 27 artikulua).

Gainera, Lehia Desleialaren Legearen klausula araberan, informazio faltsua duen edozein jokabide desleiala izango da, edo, informazioa benetakoa izan arren, edukia edo aurkezpena dela-eta hartzaileei nahastea eragin ahal dien informazioa duten jokabideak ere desleialak izango dira, haien jokaera ekonomikoa alda dezaketelako (Lehia Desleialaren Legearen 5. artikulua)

Lehia Desleialaren Legean ezarritako betekizunak metagarriak dira. Horrela, merkataritzako praktika bat engainagarria da, batetik, informazioa faltsua duenean edo hartzaileei nahasmendua eragiten dietenean (ulertzen da hartzailea batez beteko kontsumitzailea dela), eta bestetik, kontsumitzaileen



jokabide ekonomikoa alda dezakeenean, hau da, beste modu batez kontsumitzaileak hartuko ez lukeen erabakia hartzera eramaten duenean.¹

4. Salatzaileak deskribatu duen praktikak –enpresa iragarlearen web gunean dagoen kanpainaren sustapen-bideoan gertatzen den bezalaxe (<http://www.eroski.es/todo-sin-iva>)- ez dauka daturik esateko hiru betekizun metagarriak gertatzen direla, alegia, praktika desleiala lehiaren arau-haustetzat jotzeko beharrezko daturik ez dago.

Ez dago legez kanpoko publizitate-praktikarik, engainagarria edo desleiala dena, salatutako publizitate kanpainan, Lehia Desleialaren Legean deskribatzen diren jokabideetako batean ere ezin daitekeelako sartu.

Ez da lehia askea faltsutu.

Ez zaio interes publikoari eragin.

Salatzaileak alegatu duen moduan, kanpainan BEZik gabeko egunak erabiltzen dira deskontu baten publizitatea egiteko, eta horrek ez dakar zerga arloko arau-hausterik eta ez du zalantzan jartzen produktu bakoitzaren zergak ordaindu beharra.

Merkatuan nagusitasun egoeran ez dauden eta lehiakideak baztertzeko asmorik ez duten enpresek deskontu-kanpainak egiteak ez dauka konnotazio negatiborik, lehiaren ikuspuntutik. Are gehiago, kanpaina horiek pizgarria izan daitezke merkatuko lehiarentzat, eta eskaintzen berrikuntza eta zerbitzuen kontsumitzaileen posizio erlatiboa errazten dute.

Ondorioztatzen da, beraz, LDEAn dauden datuen arabera, ez dela lehiaren arau-hausterik egon.

Bilbon, 2015eko urriaren 22an

¹ Ikusi Lehiaren Defentsarako uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1, 2 eta 3 artikulua (BOE, 159 zk., 2007ko uztailaren 4koa).